

NOLA KOMUNIKATU ZAINTZEN ARI NAIZENAREKIN

Zaintzailearen eta pertsona eriaren arteko komunikazioa ezinbestekoa da eritasunean zehar. Dementia duen pertsonak pixkana-pixkana galduko ditu komunikazio-gaitasunak. Hori dela-eta, komeni da errebisatzea pertsona eriari zuzentzeko eta harekin komunikatzeko modua. Hala eginez gero, errazago bideratuko ditugu nahasmenduak.

Gomendatutako estrategiak

- ▶ Errespetuzko eta enpatiazko jarrera izan. Kontuan izan portaera-alterazioen atzean beti badela arrazoiren bat. Saihestu behar da pertsona eria konbentzitzea, arrazoitzea, eztabaidatzea edo hari kontra egitea. Hala eginez gero, asaldurazko edo oldarkortasunezko gertaerak edo kontrolik gabeko erreakzioak saihestuko ditugu.
- ▶ Pertsonari bere izenez deitu (haren arreta erakartzeko lehen modu moduan) eta bideratu. Zaintzaileak ere bere burua identifikatuko du.
- ▶ Leku lasaiak bilatu, hitz egiteko eta distrakzioak saihesteko.
- ▶ Dementia duen pertsonari heldua balitz bezala hitz egin eta, orobat, egin beharrekoaren gaineko argibideak eman, haur bat balitz bezala hartu gabe.
- ▶ Hitz egin motel, samur, ahots ertainarekin eta esaldi labur positiboekin. Orobat, aldi bakoitzeko mezu bat eman, jarraibideak soilduz eta keinuez lagunduz.
- ▶ Jarrera harkorra izan, parez pare hitz egin eta ukimen fisiko arina egin, ongi onartzen badu.
- ▶ Dementia duen pertsonari eman denbora erantzuteko eta, ezin badu, erreparatu adierazitako sentimenduei (hitzezkoa ez den hizkuntzari). Hala bada, egin galdera itxiak, bai edo ez erantzuteko modukoak.
- ▶ Ahalegindu ez eztabaidatzen logikaren edo arrazoiaren bidetik. Beharrezkoa bada, zuzendu egoera eta ahalegindu agerian uzten. Saihestu galdeketak gogoratzen duenaz edo ez duenaz.
- ▶ Erabili hitzik gabeko komunikazioa (doinua, keinuak, ferekak, begiratua, etab.). Eritasunak aurrera egin ahala, hitzik gabeko komunikazioa oinarritzkoa da dementia duen pertsonarekin harremanak izan nahi badira.